



# Martxoan, emakumeak ardatz

drogetenituri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 176. alea 2010eko otsaila

# Hauek dira Elhuyarren jokoan irabazleak:



## ZOO ZOROA

3 - 5 urteko umeentzat

CD-ROMa + pelutxea + motxila

Demoa: [www.elhuyar.org/zoozorrea](http://www.elhuyar.org/zoozorrea)



Oinatz Rodríguez (Ermua)



Mikele Zamakola (Ermua)



Jone Redondo (Ermua)

## ARMIX KART

7 - 10 urteko umeentzat

Demoa: [www.elhuyar.org/armixkart](http://www.elhuyar.org/armixkart)



Araitz Katarain (Mallabia)

## Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!!

★ Joko hauek [www.elhuyar.org/edizioak](http://www.elhuyar.org/edizioak) helbidean erosi daitezke. Bertan, %5eko deskontua dago produktu guztietan.

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)  
247 posta-kutxa  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Estibalitz González,  
Alazne Aiestaran,  
Eneritz Aranburu eta  
Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

'La Papa producciones'.

**LAGUNTZAILEAK:**

Igone Amesti, Patxi López,  
José Jaramillo, Asier Galdós,  
Valentín Mugarza,  
M. Rosario Arrizabalaga,  
Begoña Fernández,  
Ane Saénz eta  
Fede Iturriagagoitia.

**ARGAZKIAK:**

Alazne Aiestaran, Koska  
Irratia, Eneritz Aranburu  
eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Jon Arano, Irune Martínez  
eta Ane Loiola.

**TIRADA:**

2.200 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## Oilagorra *Becada* *Scolopax rusticola*

Usaintzen, dastatzen eta ukitzen laguntzen dion moko luze-luzea du hegazti potinkote honek. Lumatan orbelaren kolore bera du eta ez da zuhaitzen adarretara igoten, lurrean sasi eta sastra artean gordetzen da beti. Bere ondotik pasatuz gero, ez du zizkinik egingo; kopautxo bat egiteko edo zapata-sokak lotzeko norbera geratuta, orduan hasiko da hegan. Arteta, Oiz, Urko, Elorreta... gutxien espero den lekuan egoten da, gero eta urriago, hori bai! Ehiza-txakurrek usainera esaten dute non dagoen; gure aitxaren esanetan: "Ermuko plaza erdixan bada be txakurra geldi geratzen badok, jabetu, egin kasu zeozer esan nahi dau-eta".



## Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO .....4	BOTEPRONTOA .....16
Mendekotasun egoeran bizi diren bizilagunei arreta integraleko zerbitzua emateko Plataforma	Loli Bello
ELKARRIZKETA .....5-7	KIROLZALE .....17
Ricardo Combi	Peio Goikoetxea
MALLABIAN ZER? .....8-9	ANTZINAKOAK.....18
Inauteriak eta Begoña Arrieta	Ermua eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA .....10-11	SALEROSKETAK .....19
Gizakia askatasunaren bidean	Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN.....12-13	IRITZIA .....20
Kiroldegiko zerbitzuak	Kontrako bidea
ERMUAN ZER? .....14-15	KALEKO INKESTA .....21
Martxoak 8	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
	AGENDA .....22
	Martxoko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# Mendekotasun egoeran bizi diren Ermuko bizilagunei arreta integraleko zerbitzua emateko Plataforma

Orain dela bi urte sortu zen Plataforma hau. Bere lana, zaintzaileei lagundu eta informazioa eskaintzea da, besteak beste.

## - Zein urtetan sortu zen taldea?

Ermuko Emakume Asanbladak 2006. urtean mendekotasun egoeran bizi diren pertsonen zaintzaren gaia lantzeko hasitako lanaren ondorioz sortu zen. Lehen bilera 2008ko urtarrilean egin genuen.

## - Zenbat kide zarete?

Momentu honetan 40 pertsona inguruk hartzen dugu parte plataforman, ia guztiak emakumeak.

## - Zeintzuk dira zuen helburuak?

Plataformaren helburu nagusia mendekotasun egoeran dauden eta hauen zaintzaz arduratzen diren pertsonen egoera hobetzea da. Horretarako ezinbestekoa da zerbitzu publikoak hobetzea eta zaintza lana modu orekatuan gizon eta emakumeen artean banatzea, oraindik ere emakumeak baitira nagusiki lan horretaz arduratzen direnak. Erakunde ezberdinak eta herritarrak zaintzaren gaiarekiko sentsibilizatzea bilatzen du Plataformak eta aldi berean zaintzaileen ahotsa bideratzeko tresna bat izan nahi du, beraien eskaerak eta ekarpenak bildu eta artikulatuz.



**zaintzak kostua du**

Pertsona guztiek daukagu zainduak izateko eskubidea; galdera honakoa da: **Nork dauka zaintzeko derrigortasuna?**

**LOBIANOn, azaroaren 4an, 15.30etik 18.30era**

Emakumeek zaintzeagatik ordaintzen dugun prezioa  
Mari Luz Esteban, Medikuntza antropologoa eta Euzko

## - Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Bileren maiztasuna urteko plangintzaren arabera definitzen da, baina urtean 8 bat bilera egiten ditugu, bertan jarraitu beharreko lan ildoak finkatu eta estrategiak diseinatzen ditugularik.

## - Zeintzuk jarduera egiten dituzue?

Antolatutako jarduerak eremu ezberdinak jorratzen dituzte. Alde batetik, informazioa eskaintzen dugu, horretarako dauden zerbitzu eta baliabideak ezagutarazteko gida bat landu genuen, Mendekotasun Legearen inguruan informatzeko hitzaldiak antolatu ditugu... Egindako lana plazaratzea gaiarekiko kontzientzia pizteko tresna baliagarria

da eta horretarako kanpaina bereziak egin ditugu. Halaber, guregana hurbiltzen diren zaintzaileen beharrak aztertzen eta ahal dugun neurrian horiei irtenbidea emateko lana egiten dugu (tramiteak burutzeko laguntza eskainiz, daukaten kezka eta zalantzak argituz, dituzten aukera ezberdinak azalduz eta zerbitzu eta baliabideetara zuzenduz....).

## - Zuekin harremanetan jartzeko?

Plataformak ez dauka bulegorik eta orain arte bilerak Emakumeen Etxean edo Lobianon egin izan ditugu. Gurekin harremanetan jartzeko bide errazena telefono honetara deitzea da: 661219434 (Marixe Noya).

**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA



Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)



**ZABAL**



**ERMUA**

**GARAGARDOTEGIA**

CERYECERTIA  
NCHN



**ZYTik**

OTARTEKO eta  
IMPORTAZIOZKO  
GARAGARDOtan  
berezitasuna

943 17 39 78



**Ricardo Combi, aktore eta zuzendaria:**

## **“Eraso sexistetan harantzago joan nahi nuen nire azken antzezlanarekin”**

Ricardo Combik martxoaren 12an aurkeztuko du ‘Rosas Rojas’, berak idatzi eta zuzendutako azken lana. Ermuko antzerki taldeen zuzendari ohiak tratu txarrak jorratzen ditu antzezlan horretan, eraso eragin dezaketen egoerei erreparatuz. Combik aktore lanak egiten ditu baita ere, Rosa Martínez-Alcocer eta Izaskun Asuarekin batera. Berarekin egoteko aukera izan du Drogetenitturrik eta bere bizitza laburbiltzen duen albiste bildumari errepasoa egin diogu.

- Eibarko XXXIII. Antzerki Jardunaldietan aurkeztuko da 'Rosas Rojas'. Antzelan hau iazko irailean estreinatuta zenuten Durangon, baina zenbat denbora behar izan duzue prestatzeko?

Muntaia luzea izan da, 4 edo 5 hilabete ingurukoa. Ez hainbeste lan asko egin dugulako, baizik eta lana asko dosifikatu behar izan dugulako. Antzezlaren gaia emozionalki oso konprometitua da. Rosa Martínez-Alcocer eta Izaskun Asua asko inplikatu dira emozionalki eta ez genuen nahi lanak min egitea.

- Zuzendari eta aktore lanak egiteaz gain, testuaren egilea ere zu zara. Nekeza izan da?

Urtebete inguru eman dut horretan. Antzezlanean agertzen den guztiak (batez ere psikologoren pertsonaiak esaten duen guztia) oinarri zientifikoa du. Dokumentazio lan ikaragarria dago horren atzean.

- Zergatik egin tratu txarren inguruko antzezlana?

Gaia interesatzen zaidalako. Baina batez ere, beraren gainean larregi hitz egiten delako, esku artean sarrigi erabiltzen dugulako. Ni ere segur aski gauza berdinetan erori naiz, baina apur bat harantzago joan nahi nuen, golpeaz harantzago, erasoaz harantzago. Horretaz gain, ha-



rreman batean noizbehinka pizten diren argitxo gorrien testigantza eman nahi nuen, batez ere harremana hasten denean. Ohartarazpenak dira, baina maitemintze prozesuan gaudenean ez ditugu ikusten, burmuineko osagai kimikoen nahasketa batek itsutu egiten gaituelako.

- Lehen harremanak izaten ari direnei zuzendutako antzezlana da?

Gazteenengan eragina izatea gustatuko litzaidake. Laurehun ikusleren artean, pare bat gazte istorioarekin identifikatzen badira nahikoa da niretzat. Mutiko edo neskatok batek pentsatzea: niri ere hori gertatzen ari zait, nire espazioa galtzen ari

naiz, nire bikoteak eskatu eta eskatu egiten dit eta nahi duena besterik ez dit ematen, ni izateari lagatzen ari naiz... Horrelako osagaiek harremanak gaixotu egiten dituzte eta nolabaiteko biolentzian amaitzen dute, mugaraino heltzen direnean.

- Eta lanarekin gustura geratu zara?

Egia esan, gauza asko geratu dira esan barik. Beste lan bat egin nahi nuen, baina errealitateari eta baliabideei egokitu behar izan dut. Sei pertsonaiez osatutako obra egin nahi nuen: bikote homosexuala, heterosexuala eta adiskidetasun harremana duen bikoteek osatua. Espektroa zabaldu nahi nuen eta arketipoetatik irten. Tratu txarrak albistegietan jorrotzen ez diren osagaiez ere beteta daude. Albistegiak saldu daitezkeen premisetara egokitzen dira.

- Ezezagunak dira oraindik

aipatu dituzun osagai horiek?

Teknologiari esker, zientzia gizakiaren burmuinaren funtzionamendua aztertzen hasi da duela 10 urte inguru. Orain, gure burmuinaren bostenaren funtzionamendua begiztatzen hasi da zientzia, eta horrek gizakien arteko harremanak baldintzatzen dituela ikusten ari da, gizarte-eragileekin batera. Hala ere, tratu txarrak ezin dira inola ere justifikatu.

- Antzezlaren egile eta zuzendari izateak nahi zenuena azaltzea erraztu ditu?

Egile eta zuzendari izateak ez zidan inongo buruhausterik eman, askotan egin izan dudalako. Baina zuzendari eta aktorea izatea ez da erabaki boluntarioa izan. Antzezlanean nahiago nuke aktore lanak ez egitea, baina errealitate bat zegoen, epe batzuk... Nik pertsona bat nuen buruan, bai-

**“Tratu txarrak albistegietan jorrotzen ez diren osagaiez ere beteta daude”**

**ILEAPAINDEGIA**  
Izaskun  
Goenkalea, 9 (Plaza San Martin)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17.66.90  
**ILEAPAINDEGIA**

komunitateak  
asegururak  
**San Pelayo**  
aholkularitza  
fiskal eta juridikoa  
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**PUB YOMY**  
**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**

na 2010eko erdialdera arte ez zituen beste lan batzuk bukatzen eta ezinezkoa zen berak egitea. Beste aktore bat bilatzen ahalegindu ginen, baina ez zuen funtzionatu eta azkenean Rosa Martínez-Alcocer, Izaskun Asua eta hirurok aurrera egitea erabaki genuen. Baina egia esan, ez nau zoriontsu egin.

**- Zuzendari lanetan laguntza jaso duzu, ezta?**

Bai, zuzendaria den lagun baten laguntza handia jaso nuen: Susana Toscano. Hamar bat egun egon zen gurekin eta horrek aktore lanean sakontzeko aukera eman zidan. Elkarrekin ikasi dugu eta kode berdinak konpartitzen ditugu, horregatik Susanaren laguntza oso baliagarria izango zela banekien.

**- Ermuko antzerkia bultzatzeko zuk egindako lana ere oso garrantzitsua izan zen. Zein oroitzapen dituzu?**

1989. urtean heldu nintzen Ermura eta taldearekin izandako lehen bilera otsailaren 5ean izan zen. Ondo gogoratzen dut, nire urtebetetze eguna zelako! Ongariko eskoletara igo nintzen, han entseatzan baikenuen. Ermua maite dut. Niretzat 'terapia' izan zen. Bilatzen nuena topatu nuen hemen, elkarte kulturelei zegokieenez potentzial handiko herria zen, eta gainera antzerki zaletuak zeuden.

**- Zurekin ikasi zuten aktoreen berririk baduzu?**

Nik ezagutu nituenean askok ez zekiten bere bizitzarekin zer egin eta orain %80a Madrilen dago lanean: Mikel, Juanma, Juan, Prada, JV...

**- Emakumeen taldearen sorreraren parte izan zinen?**

Bai, antzerki taldea finkatu zenean, emakumeen antzerki taldea sortu genuen. Gogo handiarekin zegoen emakume talde bat etorri zitzaidan, Begoña Vesga eta

## "Udalarekin nuen harremana hondatu zenean, Ermua laga eta Italiara joan nintzen"

Begoña Fernández tartean. Aurrera egitea erabaki genuen eta gaur egun ere martxan jarraitzen du. Talde bakoitzak bere antzezlanak egiten zituen, Lisistrata taularatzea erabaki genuen arte. Talde biak elkartu genituen, amek eta seme-alabek elkarrekin lan egiteko aukera izan zuten eta esperientzia zoragarria izan zen.

**- Zergatik joan zinen?**

Ateneoren itxieraren ostean joan nintzen. Sekulako iskanbilak egon ziren, Ateneoa bota eta aparkalekuak egin nahi zituztelako. Estatu osoko gutunak jaso genituen, kalejirak egin genituen... Azkenean Ateneoa bota zuten, baina ez zuten aparkalekurik egin,

ezertarako balio ez duen beste zerbait egin zuten. Udalarekin nuen harremana hondatu egin zen eta hemen ez nengoen gustura jada. Lana irten zitzaidan Italian eta 12 urtez geratu nintzen bertan. Emakumeen taldea Rosaren eskuetan geratu zen eta antzerki tailerra bertako ikaslerik zaharrenak zuzentzen hasi ziren: Isabel Garcia eta Juan Calle, esaterako. Gero arazotoxoak egon ziren euren artean, batzuk Madrilera joan ziren... Zorionez, Juan Carlos Colinak hartu zuen taldea eta honek indarra hartu zuen berririo ere. Beragatik ez balitz, taldea bertan behera geratuko zen garai horretan segur aski. Gainera, Udalarekin harreman ona duela uste dut eta hori oso garrantzitsua da, herri honetan eta gainontzeko guztietan ere.

**- Zure egungo taldeak 'La Papa Producciones' du izena. Nondik dator?**

La Papa antzerkia Ermuan sortu zen. Antzerki taldeko aktore zaharrenek osatzen zuten eta hauen irteera profesionala zuen helburu. Manuel Moreno eta Izaskunek 50 bat funtzio egin zituzten talde horrekin, 'Bikoteka' antzezlanarekin. Gero, izena galdu egin zen. Italiatik bueltatu nintzenean, Izaskun eta biok lanean hasteko izen hori berreskuratzea erabaki genuen, historia politetz betetako izena baita.

Dorleta Vidal



solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21  
ERMUA








# INAUTERIAK MALLABIAN



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...  
eta hostalarien umore ona*



## JASOKUNDEKO NESKAK 'OH HAPPY DAY'N AURRERA

Aurrera, eta zelan gainera!! Aste bitten jarraixen kanturik onena irabazi dabe gure neskek, horrek esan nahi dau 'Oh Happy Day' bigarren edizinoko CDien mallabitarrek kantu bi behintzet edukiko dittuela. Lehenengoa M-n Ezten taldiaren 'Beldurak ahaztuta' izan zan, Longako Ainize izan zalarik bakarlari. Gustora arritu ziren gure neskek, ijui baten, dantzari, emakumien indderra eta koloriek jantzitze. "Oholtzari beldurra galdu diozue eta hori nabari da" esan eutsien Unai Zabaleta epaimahaikidiek. Lehenengo ahotsa flojo samar entzun ei eban Miren Fernandezek, bolumen faltarekin, baina "transmititu diguten energia eta alaitasuna" medio, gau horretako kantarik onenaren sarixe emon eutsien. Hurrengo aste teko galan, Klaudiok esaten daben moduen 'izendapen gau' zelan zan, gure neskek Abba talde ezagunaren 'Dancing Queen' kanta famatu eta poperue eskaini eben, programa horretarako egokixe. Dotore eta pozik, kantuarekin disfrutatu egin eben eta ikusleguari gozatu arazi eutsien, "gustora dagoz, pozik eta irribarretsu ageri dira, eta horrek asko esan nahi dau" komentatzen eban ikusle batek. Durangoko amama Elik jositako soineko, gona, txaleko eta bolantiek distira egin eben mallabitarrek, sarixe irebazteraino. Kantarik onena oster be. "Ez gendun uste bi astetan jarraixen emongo euskuenik, baina halan izen da eta pozik" komentatzen euskun Iratxe zuzendarixek. Beldurak eta lotsak alde batera itxi dabeiz eta eszenatokixen gero eta gustorago dagozala erakusten dabe, epaimahaikidien esanetan. Holantxeik jarraitu neskek, baina erlajatu barik, Iñigo Arbizak esanda lez, "oreka bilatu behar duzue", lehenengo ahotsa kamuflatu egiten dala bestiekin-eta. Beraz jarraitu gogor biherrien, herri dana daukezue-eta zeuen zain zapatuero telebistari begire, nahiz eta Athletic-eko partiduek beste kate baten emon. Bestalde, Orrospengo Iraitzen taldie, Astigarrako Ahotsak Gazte, Durangoko Rock Izar eta Donibane Lohitzuneko Tximitxamarekin batera izendatue izan zan. Mallabitarren partez, zorte on danoi eta aurrera!!!

## MALLABIKO UDAL PLANGINTZARAKO AHOLKU-BATZORDEA OSATU DA

Urtarrilaren 22ko Udal osoko bilkuran onartu zan aho batez Mallabiko Udal Plangintzarako Aholku-Batzordea eratzea. Lehendik onartuta egoen herritarrentzat saio irekiak egitea aurrerakineko edukiak jakiteko eta eztabaidatzeko. Herri kontsulta egiteko aukera ere jasotzen da gai korapilatsu edo eztabaidagarria sortzen bada. Baita ere jasota zegoen lehendik informazioa banatzeko behar diren bitartekoak jarriko dituela Udalak.

Aholku batzorde hau osatzen dute: alkateak, hirigintzako zinegotziak, udaleko tekniko bik, auzoetako ordezkari bik, herriko kultur eta kirol taldeetako partaide bik, ordezkari sindikal batek eta nekazal sindikatu bateko ordezkariak. Bertan hartuko dabe parte alderdi ezberdinetako ordezkariak be. Batzordeko idazkaria aholkularitza juridikoko abokatu bat izango da. Batzorde honen helburu nagusia herritarren parte hartzea ziurtatzea da; bere eskuetan jarriko dira Udalak Plangintza orokorrerako daukezan asmuek, egingo diren ikerketa eta eskatuko dittun estudio guztixek. Batzordiek be bere txostenak egin biherko dittu mahai gainien jartzen diren hirigintzako proposamen ezberdinei buruz.

## INTXAURTI PLAZA BERRIZTATU ETA EGOKITZUKO DAU UDALAK

Urtarrilaren 22ko bilkuran onartu zan Intxaurti plazie berriztatze eta bertan egokitze lanak egittie herritarrek erabilittiaz aparte haur-eskolako umiek bertan jolasteko eta probetxu gehiago ateratzeko. Informazio gehiago nahi dabenak eta proiektuan nundik norakuek ezagutu nahi dabezanak ikusgai dauke proiektue udaletxien.

## BEGOÑA ARRIETARI OMENALDIE

Martxoaren 6an luzeruen Mallabiko eskolako sukaldarixe izan dan Begoña Arrietari omenaldixe egingo jako.

Eneritz Aranburu

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak,  
telebistak, bideoak,  
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**MUGA**

**KALORIK**



San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

**AKADEMIA**

**ERMUA INFORMATIKA**

TRESNERIA ETA OSAGAI  
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g  
Telefona (943) 17 90 38

**IZOTZ**  
KONTELATUAK



Ermuko Merkatua.  
54 eta 55 postuak  
943 17 41 01  
Arrasateko Merkatua  
943 77 05 98

**ELUR**

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa




**Aldapa 1** **943 17 60 52**

**URRETA** burdindenda

- × Etxea
- × Tresneria
- × Brikolaia
- × Rielak
- × Giltzak
- × Zerrailgintza
- × Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

# Gizakia askatasunaren bidean

**Francesc Ferrer i Guardia pedagogo anarkistaren eredu pedagogikoak zabaltzeko asmoz, hitzaldia eta tailer praktikoa burutuko dira Ermuan martxoaren 2an eta 6an, Ateneo Libertarioak antolatuta. Martxoaren 2an, ‘Pedagogia Libertarioa’ren gakoak azalduko dira hitzaldi batean. Martxoaren 6an, aldiz, tailer praktikoa egingo da. ‘Pedagogia Libertarioa’ eta bere esperientziak sakonki ezagutzen dituen Tania Martinezek zuzenduko ditu ekimen biak.**



**F**rancesc Ferrer i Guardia (1859-1909). Berak sortutako ‘Eskola Modernoa’ eta ‘Pedagogia Libertarioa’, autoritarismoaren aurkako pedagogiaren aitzindari izan ziren. Eskola Modernoa sortu ondoren, autoritarismoaren aurkako beste proposamen pedagogiko mota batzuk sortu ziren XX. mendean.

Hala ere, ‘Pedagogia Libertarioa’ berezia da, bere jatorria ideologia anarkistatik datorrelako. Horrez gain, Neill, Freinet, Freire eta Rogers bezalako pedagogoen teoriekin badu elementu komunik: giza autonomia gara-

tzeari inolako mugarik ez zaiola jarri behar aldarrikatzen du, norberak bere buruaren jabe izateko duen eskubidean oinarrituta; norberaren eta besteen askatasuna eskubidetzat hartzen da, balio berrien esperientziari atea irekiz, eta erakunde edo pertsonak ezartzearen aurka dago, ikasleak eskola tradizionalaren zorrotasunetik askatzeko helburu nagusiarekin.

Pedagogo bartzelonar hau pedagogia anarkistaren eredu dugu. Gizarte kezka sakonak zituen eta konpromiso anarkista bereganatu zuen. Hortik abiatuta, 1891. urte-

an pedagogia berria garatu zuen, pedagogia libertarioa, eta hau berak sortutako ‘Eskola Modernoa’n garatu zuen. Horren helburua gizartea aldatzea zen. Urte gutxiren buruan, ‘Eskola Modernoa’ren matrikula kopurua handitzen joan zen eta Estatuko beste lurraldeetara zabaldtu zen. Aipatzekoa da, hala ere, Estatuan eredu berriazale hiru alde batera lagatzen saiatu baziren (eta badira ere), Europa zein Ameriketako pedagogoei goraipatu dituztela urteetan.

*“Zergatik eta zertarako hezi nahi ditugu umeak?”*

galdetzen zion Ferrer i Guardia bere buruari. Eta erantzuna hauxe zen: *“Heziketaren bidez pertsonen liberazioa lortzeko eta, honi esker, gizartearen aldaketa gauzatzeko”*.

Horren arabera, boterearen aurkako altxamendua eta kritikotasuna piztu behar ditu hezkuntzak eta zapalkuntza espirituala eta sasi balioen kontra jo behar du, elkarbizitzarako gizarte egitura berria sortu dadin. Eredu pedagogiko honek, anarkista den heinean, boterearen eta erakundearen kontra jotzen du gizartearen bilakaeraren bila.



Drogeteniituri, 176 zkia.



### Moderno eta arrazionala

Eredu honen arabera, oinarrizko zientifikoetatik eraiki behar da ezagutza, dogmatismo arrastorik gabe, superstizioz gabe eta mitoekin kontra, hauek guztiak menderatuz sortzen dutelako. Erligioak eta mitoei sortzen duten menderatasunaren aurka, 'Eskola Modernoak' zientzia naturalaren ikaskuntza defendatzen zuten: egiaztagarria eta behagarria, alegia.

Ikaskuntza mota honek gizaki kritikoak sortzen ditu, bere jakintza propioa jorratu eta izango dutenak. Ikasleak, zientzia naturala ezagutzaren ondorioz, bere ezagupenetan parte hartuko luke eta sorturiko arazoak bere kabuz konponduko lituzke.

Ferrer-ek 1891ko urtarriaren 8an irekitako eskolan, gainontzeko eskoletan ez bezala, neskek eta mutilek

elkarrekin ikasten zuten. Eskola arrazionalarentzat, neskak eta mutilak elkarrekin hezteko (eskola mistoa, alegia) ezinbestekoa zen. Heziketaren helburu bat emakumea gizonaren elementu bat ez zela argi agertzea zen: emakumea eta gizona adiskideak dira eta harreman horretan munduarekiko ikuspegia, arazoak eta betebeharrak bien artean osatzeko aukera izan behar dute.

'Eskola Modernoan' ez zen klase sozialen arteko bereizketarik egiten eta guztiak batera ikasteari positiboa eta beharrezkoa irizten zitzaion: elkar aberasten baziren, ikasleek beste ikuspegi bat hartzen zuten, klase bakoitzak bere lekutik bestearen beharrak eta nahiak ikusten zituen eta gizartea hobetzeko bideak topatzeko gaitasuna aurkituko zuten.

Aurreko ideiarekin jarraituz -gizaki orok zerbait es-

kaintzeko ahalmena dauka, besteentzat baliagarri suerta daitekeena-, 'Eskola Modernoan' edozein izan daiteke irakasle. Fabrikako langileak zein unibertsitateko irakasleek, denek daukate zer esan eta zer erakutsi.

### Azterketarik ez

Klase sozialen eta sexuen arteko bereizketak gaindituta, eredu pedagogiko honen arabera borondatez egiten ez den guztia ezabatu behar da, hau da, ez dago ikaslearen arteko bereizketak sortuko duen azterketarik, kalifikaziorik, saririk edo zigorririk. Ferrer-en aburuz, garai hartako eskolan, agintariak bere ideiak inposatzen zituen eta ikaslea sistemari egokitzeko helburu bakarra. 'Eskola modernoan', aldiz, umea pertsona askea izatea da helburu nagusia, bere etorkizunaren jabe izango dena.


Bestalde, garai hartan 'Eskola Modernoak' egindako ekarpen garrantzitsuenetarikoa higienaren inguruko irakaskuntza izan zen: higiena eta edertasuna bat ziren, horien bidez pertsonaren osasuna mantentzen delako. Eskolatik mezu hori etxeetara zabaltzeko, eta gaixotasunen jatorrien eta sendabideen inguruko informazioa herriari zabaltzea lortu zen.

'Eskola Modernoak' helduen hezkuntza maila handitzeko egindako ahalegina ez zen hori geratu: igandero fisiologia eta higiena, edota geografia eta zientzia naturalak azaltzen ziren. Denborarekin, hitzaldi horiek 'zientziaren mezak' izendatu ziren eta gazte eta helduak biltzen zituen.

Gaur egungo eskolak, gizakia eredu sozio-ekonomikoan murgiltzea du helburu. Horrela, gizaki horiek kapitalismoaren bidean jarraituko dutela bermatzen da. Beraz, Ferrerren eskolak, gurekin alderatuz gero, moderno izaten jarraitzen du.

"Gizarte indibidualista eta desorekatu hau aldatuko duten pertsona kritikoak sortuko dituen eskola marxan ipintzeko garaia heldu da", diote Ateneo Libertarioko kideek. Horretarako, martxoko jardunaldi hauek antolatu dituzte. Hezkuntzaren edozein esparrutan jarduten dutenei edota arlo honetan arituko direnei zuzenduta daude. Hala ere, interesa duen oro eta gurasoak ere gonbidatu nahi ditu Ateneo Libertarioak.

Ane Sáenz



*Ekitaldiak doan izango dira,  
Lobianon.*

*Martxoaren 2an, 19:00etan.*

*Martxoaren 6an, 10:00etatik*

*13:30era eta 15:00etatik*

*18:00etara (luncha egongo da).*

*Izen-ematea:*

*ermukoateneolibertario@yahoo.es*

*edo 653747499 telefonoan.*



## OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• *Astelehenerdik ostiralera 9etan  
zabaltzen dugu*

mari  
asun

LORADENDA

Diputación, 9 - ERMUA - Tel. 943 174379



**70EKO KINTOAK  
FACEBOOKEN**

Ermuko 70eko kintoen gaztetako argazkiak jartzeko aukera dago, Carmen Barriosek sortu duen facebook-eko, 'yo soy quinto del 70 de Ermua / Ermuko 70ko kintoa naiz' orrian. Carmen Barrios ermuarra, Madrilen bizi da eta ekimena, 40 urte betetzen dituztelako sortu du. Ohikoa den bazkari edo afariatz gain, teknologia berriak aprobetxatu nahi izan ditu, belaunaldi horretako jendearen argazki ezberdinekin album bat sortzeko.

**SANTA AGEDAK 778  
EURO BILDU ZITUEN**

Santa Ageda bezperako kalejiraren parte hartu zuten abeslariak 778,72 euro jaso zituzten. Inoiz baino diru kopuru handiagoa lortu dute aurten eta kopuru osoa, iragarri bezala, Haitira bidaliko dute. Kalejiraren parte hartu zutenek, herriari eskerrak eman nahi dizkiete.

**EUSKAL BIRUSEKO  
BAZKIDEEN BATZAR  
OROKORRA**

Otsailaren 27an, larunbata, Euskal Birusa Elkarteko batzar orokorra egingo da Lobianon. Lehengo deialdia 11:00etan izango da eta bigarrena 11:30ean. Bilera bukatutakoan, Ermuan Kantuan parte hartzeko aukera egongo da (plazan, 12:30ean). Azkenik, Txalaparta elkartearen bazkaria egingo da. Izen ematea, elkarrearen egoitzan, euskalbirusa@euskalnet.net helbidean edo 943179350 telefonoan egin beharko dute nahi duten bazkideek.

**Zeramika eskolako ikasleen erakusketa**

Udal Zeramika Eskolako ikasleek 2009-2010 ikasturtean egindako lanekin erakusketa egin da (moldeatuak, tornuan egindakoak, erliebeak eta eskulturak, besteak beste). Lan hauek Lobiano Kultur Guneko erakustokian ikusgai egongo dira otsailaren 28ra bitartean (lanegunetan, 18:00etatik 20:00etara eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara). Udalaren arabera, Ermuko Udal Zeramika Eskolan 18 urtetik 70 urtera bitarteko hainbat lagun matrikulatuta daude aurtengo ikasturtean. Horiek guztiak, bi taldetan banatuta daude eta eskolak astelehen eta asteazkenean izaten dituzte, San Pelaion dagoen 'Bolatokiaren' azpian dauden lokaletan. Zeramika Eskolako irakaslea Alfonso López ermuarra da.

**Ainhoa Zuazua,  
Bilboko Arriaga antzokian**

Ainhoa Zuazua soprano ermuarra Bilboko Arriaga antzokian abestu zuen otsailaren 11 eta 14a bitartean. Bertan aurkeztutako lanak 'L'isola Disabitata' (Irla bakartia) du izena eta Arriagakoa Europa mailako estreinaldia izan zen. Lau ahots (sopranoa, mezzo-sopranoa, tenorea eta baritonoa) eta pianorako 1831n sortutako ganbera-opera da eta Bilboko antzoki honen aurtengo lehen opera produkzioa da. Bilboko Arriagan abesten duen lehen aldia ez den arren, Ainhoa pozez zorutzen zegoen.

**Berbalaguneko ekintzak prest**

Berbalagunek aurten garatuko dituen ekimenen zerrenda kaleratu du. Ekimen hauek aukeratzeko bozketan 70 lagun inguruk parte hartu zuten eta horiek 700 boto baino gehiago banatu zituzten proposatutako ekintzen artean. Hauetariko batzuk hauek dira: Yoga ikastaroa (martxoaren 4 eta 11an), xaboa egiten ikasteko tailerra (martxoaren 18 eta 25a bitartean) eta Hernaniko sagardotegi batera txangoa (martxoaren 13an, 12:30ean Ermutik irten eta 20:00ak aldera itzuli). Jarduera hauetan parte hartzeko ezinbestekoa izango da izena ematea. Ekintza guztietan izena emateko epea zabalduko da, ekintza egunaren aurreko asteko astelehenean. Izena emateko 639414205 telefonora SMS bidali edo deitu, edota ermua\_berba@ae.org helbidera mezu elektronikoa bidali. Ia ekintza guztietan gehieneko kopurua egongo da.



**ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA**

**EGANA**

**ALDAGAILUAK**

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

**T XALAPARTA  
ABERNA**

**Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**Erdikokale 13  
(Ermua)**

**ENKARGYAK  
943 030 299**

## Kiroldegiko zerbitzuak hobetzeko bidean



Herriko 3.000 bizilagun baino gehiagok Kiroldegiaren kudeaketarekiko desadostasuna adierazteko sinadura bilketa batean parte hartu zuten. Haei erantzuna emateko, Udaleko bilkuran hainbat aldaketa onartu ziren. Horien artean, zerbitzu batzuk dohainik eskaintzea erabaki da: Squasheko pistak (16:30era arte lanegunetan), frontoia (16:00ak arte lanegunetan), sauna eta baino turkiarra. Era berean, beste zerbitzu batzuk martxan ipintzeko konpromisoa hartu du Udalak, esaterako:

muskulaziorako dohaineko oinarrizko kiroldegia, spa gunea igerileku txikian, 178 metro karratuko rokodromoa Betiondon eta bainu turkiarra. Gainera, spinning-eko bizikletak berrituko dira, Betiondoko atletismoko pista margotuko da eta jaurtiketak egiteko gunea sortuko da. Aldaketa hauek 386.000 euroko inbertsioa eskatuko dute.

## Herriz herriko aldizkarien webgunea: [www.tokikom.com](http://www.tokikom.com)



Tokian tokiko 20 hedabide irakurrienek, bat egin, eta interneten orrialde berria sortu dute, [www.tokikom.com](http://www.tokikom.com). Web orrialde horretan, irakurleak herriz herriko informazioa irakurriko du; informazio osoa eta momentukoa, herri horietako aldizkari eta egunkariak ematen dutena. Web orrialde berri hau sortu dutenak dira, Tokikom taldea osatzen duten hedabideak (tartean, Drogeteniturrri). Denak euskarazko hedabideak dira, eta Topagunea euskara elkarleen federazioko kide dira guztiak.

Tokikom.com 20 hedabideren artean sortu dute, eta kopurua etorkizunean handiagoa izatea espero dute. Aldizkari eta egunkari hauek badituzte ezaugarri jakin batzuk: informazio lokala edo bailarakoa eskaintzen dute, euskaraz, modu errazean, eta eurak dira irakurrienak, norbere eremuan. Irakurle gehien onarpena dute, herrian erabat txertatuak daude, eta hala diote azken urteetan egin diren azterketa guztiek (Aztiker, Ikertalde, CIES...). Alderdi eta erakundeen babesa daukate, informazio erabat plurala eskaintzen dutelako, eta euskarazko hedabideak izanagatik, erdal komunitateak ere irakurtzen du (zenbait etxetan sartzten den euskarazko produktu bakarra dira, hedabideok). Tokikom-eko aldizkari eta egunkariak publizitate merkatu handia daukate; euren tokian tokiko informazioa, tarifak eta baldintzak, web orrialde berrian izango dituzte, bezeroaren eskura. Horrez gain, publizitate eskaintza bateratua ere egingo da. Guztira 220.000 irakurle dituzte hedabideok, oso interesgarria eta eraginkorra izan daitekeen merkatua, herri edo eskualde jakin batetik urrunago iritsi nahi duen edozein bezerorentzat. Tokikom.com helbidera sartzten denak, gainera, hedabide bakoitzari buruzko informazioa lortzeko aukera dauka. Horretarako nahikoa du, berak nahi duen herri edo eskualdearen gainean klik egitea, eta hedabideari buruzko informazioa jasoko du: datuak, kontaktuak, harremana...

## ERMUKO UDAL LIBURUTEGIA SARITUA

Kultura Ministeritzak antolatzen duen 'Maria Moliner' kanpainaren barruan, saritua izan da berriro Ermuko Udal Liburutegia. Umeen eta gazteen artean irakurletasuna bultzatze asmoz burututako egitasmorik onenak kontutan hartzen diren honetan, Estatu osoko 350 liburutegik jaso dute euren lanaren errekonozimendua, tartean Euskal Herriko hamarrek. Ermukoak 'Escribiendo nuestra hoja de ruta' egitasmoa aurkeztu zuen eta ekintza sorta horrengatik ume eta gazteei zuzendutako 200 liburu-lote, pegatinak eta orri-markagailuak jaso ditu. 2005ean Sari Nazionala irabazi zuenetik, urtero-urtero egon da sarituen zerrendan.

## ARTARRAI MTKO EKINTZAK MARTXOAN

Artarrai Mendi Taldeak hainbat ekintza prestatu ditu martxorako. Hilaren 6an Diabozulora irteera antolatuko du, arroila-jaitsiera egiteko; 7an Bidarra-Errubin raftinga egiteko aukera eskainiko du; 19, 20 eta 21ean Quimboazurizara irteera proposatzen du; 27an Sarria-Urigoititik zeharkaldia eta 27tik apirilaren 5era, Trekkinga Marokon.

## www.euskalbirusa.org WEBGUNEAN SARIAK

Euskal Biruseko webgunean lehiaketak antolatuko ditugu hileroko, otsailean hasita. Eskaintako sariak irabazi ahal izateko, hilabete horretako Drogeteniturriren inguruan egindako galderari erantzuna eman beharko diozu. Sarien artean, afariak, sarrerak...

**QUETZAL**  
gazte denda  
**Baietz topatu gustuko zeozer?**  
Goienkale 9  
943 17 00 65

**Proba-Leku**  
Neopaindegia - Estetika  
  
Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**URDAITEGIA - CHARCUTERIA**  
**MAYTE**  
Plaza del Mercado  
Tel. 17 24 12  
ERMUA

**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta 3 L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14






**BOAN Oinetakoak**

**SEXTO CENTENARIO, 17** (943) 17 13 44  
**48260 ERMUA Bizkaia**



**ALBOKA**  
**MUSIKA**  
**ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)



# Martxoak 8: 2010 arrazoi martxan jarraitzeko

**Martxoaren 11n, 'Euskal Herriko Munduko Martxa' ekimena helduko da Ermura. Jarraian irakurri daitekeen testua euren manifestutik aterata dago.**

“Milaka arrazoi genituelako elkartu ginen 2000. urtean, eta mila arrazoigatik ibili ginen martxan Euskal Herrian zehar 2005. urtean. Oraindik ere milaka arrazoi ditugulako jarraituko dugu martxan. Besteak beste: prekarietatea, pobrezia, indarkeria, ikusezintasuna, diskriminazioa... Horrela, 2010. urtean beste urrats bat emango dugu eta 2008ko urrian Vigon elkartutako mundu osoko emakumeok berriz ere martxan jarriko gara lau jarduera-eremutan ekiteko: Ongizatea, Emakumeon aurkako indarkeria, Lana eta Bakea eta Desmilitarizazioa.

Euskal Herrian bizi garen emakumeok benetako tresna eraginkorrak behar ditugu askotan idatzi, baina aitortu ez zaizkigun eskubideak eskuratzeko.

**Eskubidea** emakumeak izateagatik gure kontrako biolentziarik ez jasateko. **Eskubidea** aktiboki parte hartzeko eta aintzat hartuak izateko jendarteko edozein arlo eta jardueratan. **Eskubidea** lana baldintza duinetan burutzeko. **Eskubidea** zainduak izateko eta emakumea izateagatik etxeko eta zaintza lanak egitera behartuak ez izateko. **Eskubidea** laguntza sozialak eta ekonomikoak jasotzeko, hauek famili unitatepean egon barik. **Eskubidea** emakumeok gure bidea/bizitza duintasunez egiteko, gure bizitzako etapa bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartuz. **Eskubidea** gure identitate sexuala edozein izanda ere sexualitatea askatasunez bizitzeko. **Eskubidea** gure gorputzaren inguruan askatasunez erabakitzeko eta aukeratzeko”.



## MARTXOAK 8 Ermuan:

- 'Emakumeen aurpegiak' argazki erakusketa.

Martxoaren 1etik 14ra, Lobianon.

- Liburu, disko eta pelikulen erakusketa.

Martxoaren 1etik 14ra, Udal Liburutegian.

- Zine-Kluba: 'Emakume zuzendarien zikloa'.

Martxoak 4, 11, 18 eta 25.

- Antzerkia:

Martxoak 5 ('Entremeses cotidianos'. Izarraitz taldea)

eta 12 ('Mirando a Youkali'. Cia Alba Sarraute).

- Martxoak 8:

17:00etan mural bat margotuko da plazan.

19:00etan, kontzentrazioa eta lore banaketa.

- 'Euskal Herriko Mundu Martxa':

Martxoaren 11n helduko da Ermura Munduko

Martxa. 10:30ean emakumeen topaketa egingo da eta

11:00 harrera eta murala entregatuko zaie.

Honetaz gain, 8 eta 12 urte bitarteko umeentzat

tailerra egingo da. Data zehaztu gabe dago, baina

gaia hau izango da: Umeen ipuinak eta sexismoa.

Santiago Plaza 3, behea · ERMUA  
943 10 82 42

**“Adituak gara ondo elikatzen irakasten”**

AINARA IRIONDO ANSOLA  
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea  
943 17 63 72

**DULCE BEBÉ PEQUE'S**

0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA  
943 170 005

Ileapaindegia Estetika

Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19      48260 ERMUA  
Telefonoa 943 17 22 43      (Bizkaia)

# L O L I B E L L O

- **Jaiki eta egin duzun lehenengo gauza?**

Gosaldu. Ezinbestekoa da eguna gogoz hasteko.

- **Zenbat denbora daramazu jende aurrean lanean?**

32 urte. 30 urte estetikan eta 2 hemen.

- **Zerk erakartzen zaitu lan honetatik?**

Jendeak. Udan oso toki lasai batera joaten naiz atsedeen hartzera, baina atsedena hartu eta gero jendearekin egon behar dut. Beharra da eta ilusioa egiten dit.

- **30 urte estetikan egon ondoren, zer dela eta al daketa?**

Batez ere, nire senarrari laguntzearen.

- **Zenbaterainoko garrantzia du zuretzat estetikak?**

Handia.

- **Egungo gizartean estetikak neurritz kanpo baloratzen dela uste duzu?**

Zalantzarik gabe. Nik bario handia aitortzen diot horretan egin dudalako lana, baina gainerakoek lar baloratzen dutela uste dut.

- **Gure irudia inportantea da...**

Oso. Irudi hori harmonikoa bada, edertasuna bilakatzen da. Kontuz, ez naiz ari egun inposatzen dizkiguten edertasun kanonei buruz, neurritz kanpoko diren horiei buruz alegia. Obsesionatzea ez da ona.

- **Aholku bat...**

Aholkua baino giltza dena: norberarekin gustura egotea.

- **Hilabete da, Ermuko Merkatarari eta Ostalarien El-**



**Loli Bello. 49 urte, bi neba-arreben artean nagusiena. Eibarren jaioa, baina ermuarra izateaz oso harro sentitzen dena. Makina bat urte pasa ditu 'Estetika Pilar' ren. Egund, 'Orbe' pertsiana eta toldo dendan ari da lanean. Urtarriletik, Ermuko Merkatarari eta Ostalarien buru da.**

**karteko buru izendatu zaituztela. Nola hartu duzu?**

Eltze askotako burruntzalia naiz eta gustuko dut. Sortzailleetako bat naiz, kontu horietan laguntzea gustatzen zait eta une honetan denboraz hobeto nabilela aprobetxatuz, lan horretan sartu naiz.

- **Zer behar du Ermuko Merkataritzak?**

Bezeroentzat guk aurpegi hobe izatea.

- **Nolakoa da Ermuko bezeroa?**

Orain arteko nire esperientzian oinarrituta, merkataria- ren laguntza eta iritzia eskatzen duena. Profesionalengan sinisten duena, alegia.

- **Krisiaren eragina nabaritu da Ermuko merkatarari eta ostalarien artean?**

Bai, ez dago bere unerik onenean.

- **Zer egin horri aurre egingo duzu?**

Guk ekintzak egin behar ditugu aisia eta merkataria- tza uztartzeko eta gogoratu

behar diogu bezeroari hemen gaudela. Ostalaritza, aldiz, oso motel ikusten dut.

- **Lanetik kanpo, zer duzu gustuko?**

Koadrilarekin ibiltzea.

- **Lotura handia duzu Ermuarekin...**

Eibarren, Valladoliden, Arrasaten bizi ondoren, 12 urterekin berriz etorri ginen Ermura eta ez nau inork eta ezerk hemendik mugituko. Hori espero dut behintzat! Pispiluen arbola baino ermuarragoa naiz.

- **Irribarre errazekoa zara...**

Baikorra naizela esango nuke. Gustura bazaude, uste dut hori dela transmititzen duzuna.

- **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Odolgabeko jendeak.

- **Zerk pozten zaitu?**

Bazkari batek, mendira joateak, semearekin planen bat egitea... Edozerk!

- **Nola gogoratzen duzu zure haurtzarora?**

Oso oroitzapen onak ditut.

- **Gaztarora?**

Aita hil zitzaigunean urtebete neraman ezkondata eta oso oroitzapen eskasa dut.

- **Atzera egingo zenuke denboran?**

Ez. Aurrera egin behar da. Oso ondo sentitzen naiz.

- **Zerbait egin ez izanaren penarik?**

Euskara ikastea. Hori da gaintitu gabe dudana ikasgaia. Ez da ikasi ez dudalako, ikasten bukatu ez dudalako baikik.

Alazne Aiestaran

**Yoga eskola**

**Sanatana Dharma**

\* Arnasketa.  
\* Ariketa fisiko egokiak...

San Roke 24, behea  
Informazioa: 943748593 edo 685722131 (Idoia)

**TELEFORO INTERNACIONAL**

**Zubiaurre 14**  
**Telef. 943 17 28 88**  
**48260 ERMUA**

**EGUZKI LORE**

**Peio Goikoetxea:**

# “Munduko ziklo-kros txapelketara joatea saria izan da niretzat”

**Chequiako Tábor herrian ospatu da aurtengo ziklo-kroseko munduko txapelketa eta Peio Goikoetxea ermuarrak proba horretan parte hartzeko aukera izan du. Minus zazpi graduko tenperaturarekin burutu zen lasterketa eta Peiok 51. postua lortu zuen.**

**H**amazortzi urte bete berri ditu Peio Goikoetxeak eta azken lau denboraldietan ziklo-krosean aritu da. Burututako azken lasterketen artean Táborreko mundiala dago eta hau lasterketa gogorra izan zen ermuarrarentzat: “Gogorra baino, zaila izan zen -azaltzen du Peiok- lurra izoztuta zegoen eta ia kurba guztietan lurrera jausten nintzen; hangoak, berriz, ohituta daude eta ez ziren hainbeste jausten. Gainera, zazpi gradu zero azpiko tenperatura zegoen lasterketa egin genuenean”.

Lasterketan 80 lagunek parte hartu zuten gutxi gora behera, lehen eta bigarren urteko jubenilak, eta Peio Goikoetxea (bigarren urtekoa) 51.a izan zen. “Esperientzia ona izan da eta oso ondo pasatu dut, maila handia zegoen. Gainera, hara jo-

atea bakarrik sekulako saria izan da niretzat”, dio txirrindulariak. Bertan, bi galiziar eta Ordiziako lagun batek ere parte hartu zuten eta Peio ez zen bakarrik egon: bere gurasoek, anaiak eta argazkilari batek, kotxea hartu eta 18 orduko bidaia egin zutelako Chequiako lasterketa ikusi ahal izateko.

## **Bideko txirrindularitza**

Euskadiko selekzioaren ordezkaria da Peio eta azken 4 urteetan 20 bat lasterketetan parte hartu du. Bizkaiko eta Euskadiko sailkapen orokorreko txapelduna izan da eta 2. geratu da aurten Espainiako txapelketan. “Euskadin lasterketa dezente dago eta maila ona dago. Espainian, berriz, ez dago ia lasterketarik ezta mailarik ere (Galizian ezik). Kanpoko jendea hona etortzen da lasterketetan parte hartzeko”.



Ziklo-kros eta bideko txirrindularitzaren artean banatzen ditu indarrak Peiok. “Errepidean erresistentzia da garrantzitsuena, besteez eragiten duten ikustea... Ziklo-krosean, berriz, 40 minutuko lasterketak egiten dira asko jota, eta hasieratik topera joan behar zara”. Eta aukeratzekotan argi du: “Ziklo-krosa dibertigarriagoa da, baina bideko txirrindularitza gehiago gustatzen zait eta profesionalki irteera gehiago du. Gainera, Ermuan dauden profesionalak

ikusteak asko motibatzen du. Zaila da, baina zuk ez baduzu sinesten...”.

Datorren urtean afizionatu mailara jauzia eman beharko du, baina momentuz hurbilen dituen lasterketetan du burua: martxoaren 14an bideko txirrindularitzako denboraldiari ekingo dio Eibarren. “Helburuak uda partean finkatu ditut: Bizkaiko itzulia, Ermuko lasterketa eta Euskadiko txapelketa. Heldu bitartean, lasai-lasai entrena-tzen ibiliko naiz”.

Dorleta Vidal

**drogeteniturri**

**Euskal Birusa Elkarte**

943 17 93 50  
Erdikokale 2, 1 - Elexoste  
www.euskalbirusa.org

**Bar London**  
Komentukua 2, Ermua  
Tlf: 943173312

**OSASUNA ETA EDERTASUNA  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA**

**FISIOTERAPIA**

943 17 28 09  
Goienkale, 12 - behea



Argazki hau Urkiolan aterata dago San Antonio egunien, ez dakigu zein urtetan. Bertan agertzen dira:

Ramon Aldalur, Jose Abendibar, Desiderio Arriaga, Miren Intxaurreaga, Benancio Abendibar, Luis Mujika, Jesus Intxaurreaga, Angel Astarloa, Eustasio Markina, Jose Mari Mallabiabarrena, Julian Albino Pradera...



**MALLABIA**



**ERMUA**

Ondoa dagoen argazkia Indalecio Ojanguren Arrillaga eibartarrak atera zuen. Begiradaxo bat egin frontoiaren hormari: harriak bistan ditu, porlanarekin lixatu gabe dago. Pilotak, horma hori jotera koan, nora joango ote ziren?

\* Ermuko argazki zaharrak badituzu, ekarri Elexostera (Erdikokale 2, 1) edo drogeten@gmail.com helbidera bidali eta Drogeteniturrin kaleratuko ditugu.

[www.joyeriasenen.com](http://www.joyeriasenen.com)

*Pub Dakota*

Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
[dakotaermua@hotmail.com](mailto:dakotaermua@hotmail.com)

**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

**Ardo banatzailea:**

Riedel	Hugel&Fills
Avgstvs	Anima Negra
Clos Mogador	Irache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosan	Vriego
Luis Cañas	Laurona

**DISTRIBUCIONES ARRAL**  
TELEFONOA: 943 17 60 75



Otsailak 27

Eskerrik asko irribarra beti jantzita eramateagatik. Zorionak eta hogeita hamar musu etxekoan partez!



Martxoak 5

Zorionak Naroa zure 12. urtebetetzean. Musu handi bat etxekoan partez. Ondo pasa!



Otsailak 23

Zorionak izeko Laura!!! Eta musu erraldoi bat Ainhoa eta Maiteren partez.



Martxoak 9

Zorionak gure piratari bere 3. urtebetzean. Aitxitxe-amama eta Iraia lehengusinarekin partez.



Otsailak 23

Zorionak Mikel! Maite zaitugu. Musu handi bat, Maria eta David.



Zorionak Andoni!

Asier, aita eta amaren partez, musu handi bat.



Martxoak 9

Zorionak Maitane zure 7. urtebetetzean. Aimar, aita eta amatxoren partez. Musu handi bat.



Otsailak 22

Zorionak Olatz zure 7. urtebetetzean, zure lagunaren partez, musu handi asko.



Otsailak 15

Zorionak polit hori! Beti bezain jator jarraitu. 15 musu eta 16 belarri tirakada gogor-gogor! Etxekuek.



Otsailak 14

Anetxu, zorionak zure urtebetetze egunagatik. Lagun artean ospatu beharko dugu. Jarri eguna, zain gaude eta!



Martxoak 1

Zorionak Mario zure 6. urtebetetzean. Musu bat zure senide eta lagunaren partez.



Otsailak 28

Zorionak familia guztiaren partez 3. urtebetetzean. Muxu handi bat.



Martxoak 22

Zorionak June! Ondo pasa zure 10. urtebetetzean! Maite zaitugu! Aita, ama eta Karla.



Martxoak 16

Zorionak amatxo eta Mikel. Musu handi bat aita eta Arantzaren partez.



Otsailak 3 eta 18

Zorionak Naiade eta aitxitxa Manolo. Muxu handi-handia familiakoan partez.

Hurrengo alerako azken eguna:  
**MARTXOAK 17**



**ERA GUZTIETAKO MUTUA  
ETA ASEURUEKIN  
KONTZERTATUA**

## ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK

- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROK MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16  
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: [indartu@euskalnet.net](mailto:indartu@euskalnet.net)



**José Jaramillo**

**ERMUKO  
CCOOEKO  
ARDURADUNA**

## Kontrako bidea

**E**rretiro adina 65 urtetik 67 urtera atzeratzeko lege-proposamena egin du egun hauetan Espainiako gobernuak. Era berean kotizazio topea 15 urtetik 20 urtera igotzeari buruz berbetan hasi da (eta 35 urtetik 40ra, %100 jasotzeko) eta pentsioek behera egin dute. CCOOen ustetan neurri horiek ez dira batera bidezkoak (Frantzia, esaterako, 60 urterekin erretiratzen baitira) eta horien kontra egiteko hainbat mobilizazio egingo ditu (Bilboko Gran Vian, otsailaren 27an, 11:30ean, esaterako).

CCOOek beste errebindikazio batzuk ere baditu. Horien artean garrantzitsuena agian, 2006an Tolledoko Itunean CCOO eta

UGTri esker sinatu zen jubilatuen errelebo kontratuei eustea da, nagusiei aurretiko erretiroa ematen dielako eta gazteei lan merkatura sartzeko aukera. Era berean, etxeko langileentzat erregimena garatu beharko litzateke (euro asko dagoelako hemen jokoan), kontratuak finkatu, lanpostuak sortu, langileen kopurua igo (emakumeen artean batez ere), jaiotzak bultzatzeko politikak garatu, seme-alaba kopuruan oinarritutako laguntza fiskalak garatu eta lan bereziki nekagarri, toxiko eta arriskuetsuetan dauden langileei erretiroa bermatu.


Patronala diru asko irabaztera ohituta dago eta dena poltsikora eramaten du: ez du inbertsiorik egiten, ez du sare industrialak indartzen eta industria babesik gabe lagatzen ari da. Gobernuak, berriz, oposizioari kontra egiten gatazten ditu indarrak eta oposizioa ez dago laguntzeko

prest. Guri barrezka ari dira eta langileekin jolasten ari dira, xakeko peoiak bagina bezala. Irtenbideak aurkitu behar dituzte, langileak lan egiteko gaudelako, eta ez, gaur egun moduan, esplotatuak izateko.

Bestalde, gobernuari eskatzen diogu, egungo krisi ekonomikoa eta gizarte segurantzak zaku berean sartu ez ditzan. Gizarte segurantzak 62.000 milioi euro ditu bere erreserba fondotan. Ez dago krisian, nahiz eta 80eko krisian ere, pentsioak ez zirela kobratuko iragarri zuten zoritxarigarleek. Horrela beldurra eta estresa besterik ez dute sortzen langileengan.

Esandako guztiarengatik, beste euskal sindikatuekin batera mobilizazioak egitea ezinezkoa izan arren, gu behintzat, kalean aurkituko gaituzte. Mobilizazioa gure arma bakarra delako. Ez da greba orokorra egiteko garaia, guztion artean irtenbideak topatzeko momentua baizik.

**Gu, behintzat,  
kalean aurkituko gaituzte**



**IKASTOLA**  
38 urte Ermua  
euskalduntzen



**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian  
tokiko



**Enter**  
INFORMÁTICA  
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA  
VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es



-ARRAINDEGIA  
-ITSASKIAK  
-ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA  
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA



# Zer iruditzen zaizu 67 urtera arte luzatu nahi izatea erretiroaren adina?

Negargarria iruditzen zait. Izan ere, badira lan batzuk ezinezkoak direnak pertsona batek 67 urte dituenean egitea. Uste dut irtenbidea ez dela hori erretiro-pentsioak bermatzeko. Aurrera joan beharrean atzera goaz.



**Inma Villamarín. 39 urte. Langilea**

Gaizki, hainbat lanetan 60tik gora ere leher eginda bukatzen dutelako langileek. Gainera adina 67 urtera igotzeak suposatzen du aurretiko erretiroaren adina ere 62-63 urtera igotzea. Lortu ditugu langileok urteetan hainbat eskubide, eta orain horiek galtzen ari gara. Espero dut erretiro-pentsioa kobratu ahal izatea.



**Manuel Gagigas. 41 años. Langabetua**

Egia esan, Europako herrialde gehienetan egoera antzekoan daude, beraz nahiko logikoa dirudi erretiro-pentsioak bermatzeko halako neurriak hartu behar izatea. Izan ere, beste modu batera, pensio sistema sostengaezina litzatekeela pentsatzen dut.



**Iñaki Gómez. 33 urte. Langilea**

Erretiroa hartzeko adina igo beharrean jaitsi egin behar ko luketela uste dut. Ezinezkoa ikusten dut hainbat lanetan adin horrekin eta horrenbeste urtetan lanean egonda jendeak irautea. Irtenbidea beste nonbaiten bila daitekeela uste dut. Badira hor biziarteko soldata batzuk agian aztertu behar ko lirakeenak.



**Jaime Barreira. 44 urte. Langilea**

Erabat desegokia iruditzen zait neurria. Uste dut erretiro-pentsioen auzia beste neurri batzuk hartuz konpon daitekeela. Alegia, badira gastuak murrizteko beste alor batzuk. Bestalde, pentsatzen dut enplegu gehiago sortu behar dela, aparteko orduak kendu eta kotizatzeke kontratuak egin.



**Helena Fernández. 26 urte. Langabetua**

Oso neurri txarra eta desegokia da. Nahiz eta bizi-itzaropena gaur egun luzeago izan, nahikoa da 65 urtera arte lan egitea, konpant hartuta jende asko nola heltzen den adin horretara. Ez dut uste hori irtenbidea denik erretiro-pentsioak bermatzeko. Langileen lepotik konpantu nahi dira beti horrelako auziak.



**Lydia Penis. 32 urte. Langilea**

Testua: Alazne Aiestaran

*Euskara eta euskaltegia  
egin biak zureak*



**Teresa Murga, 2. solairua  
Tel. 943 17 09 25**



**optika  
itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

**Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51**



**HORTZklinika**  
nerea iñiguez

**San Ignazio, 4 ERMUA**

**UMEENTZAKO ZINEA****Hilak 7:**  
'Bolt'.**Hilak 14:**  
'Cher ami' (euskaraz).**Hilak 21:**  
'Animal Channel'.**Hilak 28:**  
'GForce'.  
17:00etan. Lobiano Kultur Gunean.**ZINE-KLUBA (emakume zuzendarien zikloa)****Hilak 4:**  
'Tres días con la familia'.**Hilak 11:**  
'Shorok'.**Hilak 18:**  
'Nadar'.**Hilak 25:**  
'Vos que sos mi hermana'.  
19:00 eta 21:30ean.  
Lobiano Kultur Gunean.**MUSIKA****Hilak 5:**  
Abesbatzen kontzertua:  
Pispillu eta Alboka  
abesbatzak eta  
Barakaldoko orfeoia.  
20:00etan. Santiago  
elizan. Sarrera doan.**Hilak 12:**  
Kontzertua: Zumaia eta  
Ermuko Alboka Musika  
Bandak. 20:30ean.  
Santiago elizan.  
Sarrera doan.**Hilak 20:**  
Kontzertua: La Fanfare  
du Belgistan (Belgika).  
20:00etan. Lobiano  
Kultur Gunean.  
Sarrera: 5€.**Hilaren 23 eta 24an:**  
Kontzertua: Alboka  
Musika Eskolako  
ikasleak. 19:30ean.  
Lobiano Kultur Gunean.  
Sarrera doan.**Hilak 26:**  
Perkusio kontzertua:  
Batu. 22:15ean.  
Lobiano Kultur Gunean.  
Sarrera: 5€.**Hilak 27:**  
Ermuan Kantuan.  
12:30ean. Orbe  
Kardinalaren plazatik.**ANTZERKIA****Hilak 5:**  
'Entremeses cotidianos'.  
Izarraitz taldea.  
22:15ean. Lobiano  
Kultur Gunean.  
Sarrera: 5€.**Hilak 12:**  
'Mirando a Youkali'.  
Alba Sarraute.  
22:15ean. Lobiano  
Kultur Gunean.  
Sarrera: 5€.**Hilak 19:**  
'Arrastoak'. Txalo  
Produzioak. 22:15ean.  
Lobiano Kultur Gunean.  
Sarrera: 5€.**ERAKUSKETAK****Hilaren 1etik 14ra:**  
Argazkiak: 'Emakumeen  
aurpegiak'.**Hilaren 16tik 29ra:**  
Margoa: Mugartea  
taldea.Lanegunetan  
18:00etatik  
20:00etara.  
Asteburuetan  
12:00etatik  
14:00etara eta  
18:00etatik  
20:00etara.  
Lobiano Kultur Gunean.**UMEENTZAKO EKITALDIAK****Hilak 6:**  
Umeentzako  
ipuin-kontaketa.  
17:30ean.  
Udal liburutegian.**Hilak 13:**  
Haurrentzako antzerkia:  
'Piedra a piedra',  
El teatro de l'home  
dibuixat taldea.  
17:00etan. Lobiano  
Kultur Gunean.  
Sarrera: 3€.**Hilak 27:**  
Haurrentzako antzerkia:  
'Sarean Sun Sun',  
Anita Maravillas.  
17:00etan.  
Lobiano Kultur Gunean.  
Sarrera: 3€.

Patxi López

**Harategia****M. LAZKANO****BERTOKO OKELAK**  
**Geure Baserrian**  
**Hazitako Txalak**GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA  
Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua****OPTICA**  
**J. CASADO**Lenteak  
Audifonoak  
Graduatutako Antiajuak  
Eguzkitako AntiajuakKantabria, 2  
Tfnoa. 17 33 57**ERMUA****MIGUEL**  
**Harategia****TXORIZOAK**  
**ODOLOSTEAK**Probaleku, 3  
☎ 17 05 63  
**ERMUA**  
(Bizkaia)**hamburguesería**  
**TITANIK****Pintxo dastaketa**  
**poteoan**

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



# drogetenituri-k tirada handitu du.

Etxean jaso nahi duzu?  
Emaila bidali  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com) helbidera.



# GREMIOEN GIDA

**DEKORAZIOA**  
OBREEN KOORDINAZIOA \* MARIAN CARRACEDO DEKORATZALEA  
dekorazio estudioa  
**trastévere**  
baruko dekorazioa  
san pelaijo, 26 ermua  
tel/faxa. 943 17 90 89  
trastevere@wanadoo.es

**ITURGINTZA**  
FONTANERIA  
**B. DE DIOS**  
Baimendutako instalatzaileak  
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta  
petrolio produktuak  
Komunetako altzariak  
eta osagarriak  
Gipuzkoa etorb. 48 - behea  
Tel/Fax. 943 17 01 09  
E-maila: bdedios@euskalnet.net



**ELEKTRIZITATEA**  
**BETA**  
ARGIZTAPENA  
ELEKTRIZITATEA  
• Proiektuak  
• Instalazioak  
• Erreformak  
• Kalefakzioa  
• Gauko tarifa  
• erradiadore elektrikoak  
Diputazio, 13  
943 17 65 25  
689 23 31 71

**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA  
**LUIS VALLE**  
Bainugelen  
erakusketa  
943 17 15 56  
Tailerra  
943 17 23 56  
Goienkale z/g

**ERROTULAZIOA**  
**ROTEK**  
rótulos  
• Argi errotuloak  
• Autoendako  
errotuloak  
• Barne  
errotulazioa  
• Irudi  
korporatiboa  
• Neoia  
• Inpresio  
digitala formato  
handian  
Goitondo behekoa industrialdea  
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)  
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

**PERSIANAK**  
**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**  
• MUNTAIA ETA KONPONKETA  
• MOTORIZAZIOA  
• PERSIANA DEKORATIBOAK  
• PERSIANA BILGARRIAK  
• SEGURTASUN PERSIANAK.  
Tailerra:  
Zearreko buelta, 2  
943 17 66 34  
630 01 13 41  
ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60

**SERRAILAGINTZA**  
SEGURTASUNA  
**GILTZAK**  
SARRAILAGINTZA  
K21  
• Era guztietako  
sarraila eta  
segurtasun  
kutxen  
SALMENTA eta  
MANTENUA.  
• Sarrailen  
EGOKIPENAK.  
• Era guztietako  
giltzen KOPIAK.  
• Segurtasun eta  
iheserako  
INSTALAKUNTZAK.  
• Trabatutako ateak  
ASKATZEN  
ditugu.  
Urgentzietarako  
ZERBITZUA:  
943 701391  
- 24 orduko -  
Arragueta 3 (Eibar) - 943 701 391  
www.giltzak.com

**Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...**

**deitu**

**943 17 93 50**

**edo 688 63 28 76**